Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria

# Albertia
## Legutio






Lubakia Albertiara bidean
Trinchera camino a Albertia

## Memoria ibilbidea
Itinerario de la Memoria

**Albertiako Memoriaren Ibilbidea egitera gonbidatzen zaituztegu, hilerri zaharretik abiatu eta mendi deigarri hau bisitatzeko aukera ematen dizun ibilbidea. Pista zabal batek hurbilduko gaitu mendiaren oinarrira eta han urbiltegietara doan bidea hartuko dugu, jarraian pagadi eder batean sartuko dena. Gerra Zibileko aztarnak ikusi ahalko ditugu han hemen, zuhaitz artean. Ibilbideak Albertia mendia inguratzen du baina Erregoiengo zelaitik gailurrera igotzeko aukera ematen digu. Zelai horretan Legutioko batailan borrokatu ziren pertsonen omenezko eskultura ikusi ahal izango dugu. Lubakiek korridore sare zabal bat marrazten dute pagoen artean, eta oraindik ikus daitezke bonbek lurrean utzitako zuloak ere.**

**Gailurra bisitatu ondoren, mendia inguratzen duen pista hartuko dugu berriro, eta harrobi zahar baten ondotik igaro ondoren, Legutiora itzuliko gara.**

*Os invitamos a recorrer el Itinerario de la Memoria de Albertia, que partien del viejo cementerio, se dirige a la base de este emblemático monte. Una amplia pista asciende hacia los depósitos de agua y se adentra en un bonito hayedo, donde se esconden numerosas huellas de la Guerra Civil. El recorrido bordea el monte Albertia, y nos permite ascender a la cima desde la campa de Erregoien, donde podremos visitar la escultura que recuerda a las personas que lucharon en la Batalla de Villarreal. Numerosas trincheras dibujan un entramado de corredores entre las hayas, en medio de las huellas que dejaron las bombas en el terreno.*

*Tras visitar la cima retomamos la pista que bordea el monte y que, tras pasar junto a una antigua cantera, nos lleva de regreso a Legutio.*

Mendi ibilbidea
Recorrido montañero
9,8 km
335 m

azaroa abendua **1936** noviembre diciembre

## Legutioko bataila
### Batalla de Villarreal

**1936ko azaroan errepublikarrek Albertiako gailurra konkistatu zutenetik, mendia benetako amesgaiztoa bilakatu zen Legution gotorturik zeuden frankisten goarniziorako. Bere altitudea eta kokapen estrategikoa dela eta berezko gotorlekua zen Albertia, lubakiak, alanbrehesiak eta metrailadore-habia batzuk eraikiz indartuko zena. Legutioko batailan gailur honetako kontrol esparrua zabala zen eta horri esker zenbait kokaleku estrategiko bereganatu ahal izan zuten errepublikarrek, hala nola abenduaren 1ean konkistatutako Txabolapea pinudia, egun batez matxinoen destakamendua isolatzea ahalbidetu zuena. Horregatik guztiagatik, Albertia indar frankisten erasoen jomuga izan zen behin eta barriro.**

*El Albertia fue, desde su conquista en noviembre de 1936 por parte de las fuerzas republicanas, una verdadera pesadilla para las guarniciones nacionales que se habían atrincherado en Legutio. Debido a su altitud y ubicación resultaba una auténtica fortaleza natural, que sería reforzada con la construcción de trincheras, alambradas y hasta algunos nidos para ametralladora. Fue una cota estratégica en la Batalla de Villarreal, para la defensa, desde las alturas, de importantes enclaves como la del pinar de Txabolapea, conquistado el 1 de diciembre, y que permitió, por un día, el aislamiento del destacamento rebelde. Por todo ello sufrió numerosos ataques por parte de las fuerzas franquistas.*

# Albertia




Albertiako gailurrean lubakia
Trinchera en la cima de Albertia

31 marzo **1937** martxoak 31

## Bizkaiaren kontrako eraso nagusia
### Ofensiva contra Bizkaia

**1937ko martxoaren 31n, frankistek Bizkaiaren kontrako eraso nagusia (Molaren eraso nagusi izenarekin ere ezaguna) abiatu zutenean, Albertia mendiaren birkonkista izan zen zonalde honetan helburu nagusietako bat. Artilleriak eta hegazkinek gogor erasotuko zuten suzko eta metrailazko infernua sortuz, euskal indarrak atzera egitera behartu zituena. Hain handia izan zen erasoa, ezen urrutitik ikusi ahal izan baitzen nola desagertzen zen gailurra erasoak eragindako kearen atzean.**

**Bizkaiko mugetako fronte egonkortuak hautsi ondoren, hiriburua helburu zuen bideari ekin zioten. Baina erresistentzia handia aurkitu zuten mendirik mendi (Saibi, Lemoatx, Jata, Sollube...). Hala ere, ekainaren 19an Bilbo hartzea lortu zuten.**

*Cuando el 31 de marzo de 1937 los franquistas lanzan la ofensiva final contra Bizkaia, también conocida como ofensiva de Mola, es la reconquista del monte Albertia uno de los principales objetivos en esta zona. Es fuertemente atacada por artillería y aviación, creando un infierno de fuego y metralla que forzó a las fuerzas vascas a replegarse. Tal fue la magnitud del ataque que desde lo lejos pudo verse cómo desaparecía la cima bajo el humo generado por el ataque.*

*Tras la ruptura de los estabilizados frentes de los límites de Bizkaia se iniciaría el avance hacia la capital vizcaina, cuya defensa se llevó acabo monte a monte (Saibi, Lemoatx, Jata, Sollube...) y que acabó con la toma de Bilbao el 19 de junio.*

## Gotortutako mendia Albertia Monte fortificado





Erregoien. Legutioko batailaren eskultura
Erregoien. Monumento a la Batalla de Villarreal



42 y 45.- Trincheras cubiertas.
43.- Camino cubierto que sale del Albertia.
44.- Arbol detras del cual estaba la pieza que tiraba sobre Villarrea[l]
48.- Alambradas y trincheras.
50.- Nido de ametralladoras.
63-66-77-78-79-80- Trincheras.
67 y 72.- Ametralladoras.
68-73-74-75-76 y 84.- Puestos tirador.
69.-Camino cubierto y ametralladora.
70.- Puestos tirador y ametralladora.
71.- Chavola.
81.- Chavola en la trinchera 43
82 y 83.- Caminos cubiertos.




**1936ko azaroan errepublikarrek Albertia hartu zutenean mendia gotortzeko lanak hasi ziren, gailurra menderaezina bihurtzea helburu zutenak. Lubakisare konplexua eraiki zuten, alanbre-hesi, babesleku eta bide estaliekin osatu zutena. Bi kanoi eta metrailadore-postu eta -habiak ere jarri zituzten lekurik estrategikoenetan. Gaur egunera arte iritsi diren lekuan lekuko aztarnez gain, Albertian egindako gotortze lanak ikus ditzakegu, frankisten bandoak Urbinako gurutzetik marraztutako eskema honetan.**

**Erregoienen dagoen eskulturak eta Albertiako tontorrean dagoen monolitoak bataila hartan hildako eta zauritutako gudari eta milizianoak oroitu eta omendu nahi ditu.**

*Desde su ocupación por las fuerzas republicanas en noviembre de 1936, se iniciaron las labores de fortificación del Albertia, que tenían como objetivo convertirlo en un monte inexpugnable. Construyeron un verdadero entramado de de trincheras, protegidas por un trenzado de alambradas y refugios y caminos cubiertos. También instalaron dos cañones y puestos y nidos de ametralladoras en sus puntos más estratégicos. Además de las huellas que sobre el terreno han llegado hasta nuestros días, podemos ver los trabajos de fortificación llevados a cabo en Albertia en este esquema dibujado por el bando franquista desde la cruz de Urbina.*

*Una escultura en Erregoien y un monolito en la cima de Albertia recuerdan y rinden homenaje a los numerosos gudaris y milicianos muertos y heridos, que convatieron en este monte.*

## Legutio Gerra Zibilean
### en la Guerra Civil
### Argazkitan en imágenes

Ariztimuño batailoiko gudariak Albertia mendian
*Gudaris del Batallón Ariztimuño en el monte Albertia*



Albertia mendiko pagadia. Ugariak dira Gerra Zibileko aztarnak
*Hayedo del monte Albertia. Son numerosas las huellas de la Guerra Civil*



Justiziamendi. Atzean Legutio eta Txabolapeako pinudia
*Justiziamendi. Al fondo Legutio y el pinar de Txabolapea*



Gudaria Gorbeiara begira
*Gudari frente al Gorbea*





Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria
gogora

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de LEGUTIO
LEGUTIOKO Udala

112 SOS DEIAK

# Joseren baso

## Legutio

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria






## Memoria ibilbidea
Itinerario de la Memoria

**Joseren basoko Memoriaren Ibilbidea egitera gonbidatzen zaituztegu. Ibilbide hau Albinako urtegiaren ondotik abiatuta, Legutio eta Otxandio arteko errepide zaharraren gainean zegoen Joseren basoko gotorlekuraino hurbiltzen gaitu. Errepide zaharra ur azpian geratu zen 1957an Urrunagako urtegia eraiki zutenean. Ibilbide honi esker, errepublikarren defentsa-lerroko egitura interesgarrienetako bat bisitatu ahal izango duzu, bidean aurkituko ditugun pagadien edertasunaz gozatzen dugun bitartean.**

*Os invitamos a realizar el Itinerario de la Memoria de Joseren baso, que partiendo junto al pantano de Albina nos acerca hasta el fortín de Joseren baso, que se alzaba sobre la vieja carretera entre Legutio y Otxandio, actualmente oculta bajo las aguas del embalse de Urrunaga, construido en 1957. Gracias a este recorrido podrás visitar una de las estructuras defensivas del bando republicano de mayor interés y disfrutas de la belleza de los hayedos que encontraremos en el camino.*




## Ofensiva contra Bizkaia ren kontrako eraso nagusia

martxoak 31
1937
31 de marzo

**1937ko martxoaren 31n, frankistek Bizkaiaren kontrako eraso nagusia abiatu zuten, Molaren ofentsiba gisa ezaguna. Guda-lerroan borrokak indartu ziren, gure mendietan (Maroto, Albertia, Oketa...) 1936ko abenduaren 31tik, Legutioko bataila amaitu zenetik egonkortuta baitzegoen frontea. Joseren basoko egitura, Keturako gotorlekuak bezala, errepublikarren guda-lerroa defendatzeko eraiki zen. Baina bai Joserenbasokoa eta baita Keturakoak ere bertan behera utzi behar izan zituzten Nafarroako Brigadek Jarindo menditik Otxandiorantz abiatu zirenean, inguratuak izango ziren beldurrez. Horrela hasi zen frankisten Bilborantzko aurrerapena, bizia baina uste baino motelagoa, Bizkaiko lurraldearen konkista ekarri zuena.**

*El 31 de marzo de 1937 los franquistas lanzan la ofensiva final contra Bizkaia, también conocida como ofensiva de Mola. Comienzan los ataques en en la línea del frente, que en nuestro caso se encontraba estabilizada en nuestros montes (Maroto, Albertia, Oketa...) desde el 31 de diciembre de 1936, finalizada la batalla de Villarreal. La estructura de Joseren baso se encontraría fortificando, al igual que las de Ketura, la línea republicana. Pero ambas se verían abandonadas, al ser flanqueadas por las Brigadas Navarras, que desde el monte Jarindo se dirigieron hacia Otxandio. Así comenzó el lento pero intenso avance de los franquistas hacia Bilbao, conquistando el territorio de Bizkaia.*


Ultimo aviso

He decidido terminar rápidamente la guerra en el Norte de España.

Quienes no sean autores de asesinatos y depongan las armas o se entreguen serán respetados en vidas y haciendas.

Si vuestra sumisión no es inmediata arrasaré Vizcaya empezando por las industrias de guerra.

Tengo medios sobrados para ello.

General Mola.

Azkaneko deia:

General Mola.

Hegazkinetatik botatzen zituzten abisu orriak
*Octavillas con el aviso de Mola lanzadas por los aviones*

## Ur azpiko Memoria bajo las aguas

**1957an Urrunagako urtegia eraiki zenean, 1936 eta 1937 artean gertatutako borrokaldien lekuetako batzuk ur azpian geratu ziren. Legutio eta Otxandio arteko errepide zaharra eta Ollerietatik El Cruceroraino iristen zen errepidearen zati bat ere estalita daude. Azken hau Durango, Bilbo eta Gasteiz arteko errepideen arteko bidegurutze estrategikoa zen.**

**1977an, Itxarkundia batailoiko 15 gudarien gorpuak lurperatu zituzten Legutioko hilerrian. 1936ko abenduaren 2an hil ziren, El Crucero konkistatzeko erasoan eta urtegia eraikitzean ur azpian geratu ziren, urte horretan berreskuratu zituzten arte.**

*Cuando en 1957 se construye el embalse de Urrunaga, parte de los escenarios de los enfrentamientos ocurridos entre 1936 y 1937 quedan bajo sus aguas. También queda cubierta la carretera entre Legutio y Otxandio y parte de la carretera que desde Ollerías llegaba hasta "El Crucero", estratégico cruce de las carreteras entre Durango, Bilbao y Vitoria.*

*En 1977 fueron inhumados en el cementerio de Legutio los cuerpos recuperados de 15 gudaris del batallón Itxarkundia que murieron el 2 de diciembre de 1936, en el ataque por la conquista de El Crucero, y cuyos cuerpos habían quedado bajo las aguas del pantano.*

## Joseren baso
### Gotortutako multzoa . Conjunto fortificado


Gotorlekua kanpotik. Exterior del conjunto


Tronera


Albo bateko babesleku aktiboa. Abrigo activo lateral

**Joseren basoko gotortutako multzoa gaur egunera heldu den errepublikarren defentsa-lerroko interes handiko egitura da. Bere kokalekutik, Legutio eta Otxandio arteko errepidea defenda zitekeen. Errepidea, era berean, igarobidea kontrolatzeko gezi-horma batez itxita zegoen, gaur egun arraun-elkartea dagoen lekuan.**

**Eraikuntzaren uneren batean egitura honen gainean egindako sinadura bitxi batek puntu honetan kokatzen du Severino Ayerdi Arteche, Gerra Zibilean desagertu zen Zeberioko borrokalari gaztea.**

**Bere familiako lau anaietatik hiru abiatu ziren frontera eta Euzkadiko Ejerzitoan borrokatu ziren. Severino izan zen etxera itzuli ez zen bakarra, eta bere arrastoa galdu egin zen, nahiz eta familiak urte luzez ahalegin handia egin zuen non zegoen jakiteko. Borondatez eman zuen Eusko Gudarostean izena eta Ingeniarien 2. batailoira bidali zuten. Bere aztarna 1937ko uztailean galdu zen, bere sinadura jasotzen duen ingeniarien 2. batailoiko nominetan agertzen baita azkenengoz.**

*El conjunto fortificado de Joseren baso es uno de los elementos defensivos republicanos de mayor interés que han llegado hasta nuestros días. Desde este punto se podía defenser la carretera que unía Legutio con Otxandio, que se encontraba cortada por un muro aspillerado en la zona donde actualmente se encuentra el Campo de Regatas.*

*Una curiosa rúbrica realizada sobre la estructura, en algún momento de su construcción, ubica en este punto a Severino Ayerdi Arteche, jóven combatiente de Zeberio, desaparecido durante la Guerra Civil.*

*De los cuatro hermanos varones de la familia, fueron tres los que partieron al frente y lucharon en el Ejército de Euzkadi, siendo Severino el único que no regresaría a su hogar, perdiéndose su pista, pese al continuo esfuerzo realizado por parte de la familia para conocer su paradero. Debió enrolarse voluntariamente, siendo destinado al batallón nº2 de Ingenieros del Ejército Vasco. Su pista se pierde en julio de 1937, donde aparece su firma en las nóminas del batallón nº2 de ingenieros.*



Joseren bason aurkitutako Seberinoren sinadura
*Rúbrica de Seberino localizada en el conjunto de Joseren baso*

## Gerra Zibilean Legutio en la Guerra Civil

## Argazkitan en imágenes



**Justiziamendiko "blokaua", nazionalek eraikia. Atzean Oketa eta Gorbeia.**
*"Blokao" de Justiziamendi, contruido por los nacionales. Al fondo Oketa y Gorbea.*


SAEZ DE SAITEGUI MARTINEZ DE ZUAZO IGNACIO

BURGOS MUERTE

Villarreal de Alava 26 años P.N.V.

Voluntario - Teniente del Bon.Ochandiano
Capitan del batallon Araba.

© EAH

**Legutioko gudaria. Heriotz zigorra ezarri ziotela jasotzen duen agiria.**
*Gudari de legutio. Documento en el que se recoge que fue condenado a muerte.*


**Eliza eta bere kanpandorrea, gerra garaiko enfrentamenduen ostean.**
*Iglesia y su campanario tras los enfrentamientos de la Guerra Civil.*



**Irrintzi batailoiko morteroa Pagotxikin.**
*Mortero del batallón Irrintzi en la posición de Pagotxiki.*


**Urtegia eraiki aurreko zubi eta erreka. Atzean Urrunaga.**
*Puente y río anterior al pantano. Al fondo Urrunaga.*

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria
gogora

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de LEGUTIO
LEGUTIOKO Udala

112 SOS DEIAK

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria

# Txabolapea
## Legutio




1936ko azaroaren 30etik abenduaren 24ra bitartean, Legution, Euskadiko Gerra Zibileko bataila gogorrenetako bat gertatu zen: Legutioko bataila. Egun haietan gertatutakoa gogoan, oroimenerako hainbat leku bisitatzera gonbidatzen zaitutezgu, demokraziaren eta askatasunaren alde borrokatu zuten pertsonen oroimenez.

Entre el 30 de noviembre y el 24 de diciembre de 1936 en Legutio tuvo lugar una de las batallas más encarnizadas de la Guerra Civil en Euskadi: La batalla de Villarreal. En recuerdo de lo acaecido durante aquellos días, os invitamos a visitar diversos lugares de memoria para honrar a aquellas personas que lucharon en defensa de la democracia y la libertad.




## Memoria ibilbidea
Itinerario de la Memoria

**Txabolapeako Memoria Ibilbidea San Blas elizaren ondotik abiatzen da eta Txabolapeako pinudira hurbiltzeko aukera ematen digu. Ibilbide honi esker, borroka egun haietako agertokiak eta liskar haietan hildako bi pertsonen hobiak bisitatu ahalko ditugu. 2013an eta 2017an atera zituzten lurpetik hobi hauetako gorpuak.**

**Ibilbidea seinaleztatuta eta interpretatuta dago, eta aukera ematen digu Memoriaren Ibilbidea egiten dugun bitartean herritik gertuen dauden basoen edertasunaz gozatzeko.**

*El Itinerario de la Memoria de Txabolapea parte junto a la iglesia de San Blas y nos acerca hasta el pinar de Txabolapea. Gracias a este recorrido podréis visitar los escenarios de aquella cruenta batalla y los lugares donde dos combatientes muertos en aquellos enfrentamientos fueron exhumados en 2013 y 2017.*

*El recorrido está señalizado e interpretado, permitiéndonos recorrer el Itinerario de la Memoria y disfrutar de la belleza de los bosques más cercanonos al casco urbano.*

Mendi ibilbidea
Recorrido montañero
4 km
100 m

azaroa abendua 1936 noviembre diciembre

## Legutioko bataila — Batalla de Villarreal

**1936ko azaroaren 30ean, Euskal Ejerzitoak Iparraldeko Gerrako eraso-ekintzarik handiena antolatu zuen Arabako frontean. Horretarako, 15.000 gizon baino gehiago mobilizatu ziren, Legutio okupatu ostean Gasteizera heltzea eta Miranda de Ebroraino iristea helburu zutenak, azken hau komunikazio gune garrantzitsua baitzen. Horretarako honako unitateak mobilizatu ziren: artilleria, blindatutako ibilgailuak , zulatzaileak, transmisioak, osasun eta zerbitzuaz arduratzen zirenak; guztia errepublikarren abiazioaren laguntzarekin, Gerra Zibilaren bilakaera aldatu ahal izan zuen operazio antolatu baitzuten. Bataila hilabete inguru luzatuko zen eta atzean itzalitako eta zapuztutako bizitza asko utzi zituen.**

*El 30 de noviembre de 1936, Ejército de Euzkadi lanzaba sobre el frente de Álava la mayor acción ofensiva de Guerra en el Norte. Se movilizó para ello a mas de 15.000 hombres cuyo objetivo sería ocupar Villarreal, alcanzar Vitoria y llegar hasta Miranda de Ebro, importante nudo de comunicaciones. Se movilizaron unidades de artillería, blindados, zapadores, transmisiones, sanidad y servicios, con el apoyo de aviación republicana, en una operación que pudo cambiar el devenir de la Guerra Civil. Los enfrentamientos se alargarían durante cerca de un mes dejando tras ellos un gran número de vidas apagadas y truncadas.*




## Txabolapea Pinudia — Txabolapea pinar

**Gudari eta milizianoek Legutio inguruko altuera guztiak okupatzea lortu zuten, baina Txabolapea pinudia abenduaren 2an galduko zuten. Muino estrategiko honen konkista egun haietako enfrentamenduen helburu bihurtu zen. Bertako liskarrek 150 hildako baino gehiago eta dozenaka desagertu utzi zituen eremu honetan.**

**Izan ere, errepublikarren aurrerapen bakoitzak baja-kopuru ikaragarria eragiten zuen, eta azkenean, Francok tropa kolonialak, mairuen tropak, erabili zituen, kontraeraso gogorra egin zutenak, errepublikarren erretiratze handia eragin zuena. Legutioko bataila 1936ko abenduaren amaieran amaitu zen, 4.000 baja baino gehiagorekin, 1.000 hildako baino gehiagorekin eta 350 desagertu ingururekin.**

*Gudaris y milicianos consiguieron ocupar todas las alturas que circundan la villa de Legutio, pero el pinar de Txabolapea se perdería el mismo día 2 de diciembre. La toma de esta loma se convertiría en objeto de los enfrentamientos de aquellos días que dejarían sobre esta zona más de 150 muertos y decenas de desaparecidos.*

*Y es que cada avance republicano se saldaba con una terrible cuota de bajas, hasta que finalmente, Franco echó mano de tropas coloniales, tropas moras, y éstas realizaron un contundente contraataque que produjo una gran retirada republicana. Así, a finales de diciembre de 1936, la batalla llegó a su fin, con más de 4.000 bajas, más de 1.000 muertos y unos 350 desaparecidos.*









## Deshobiratzeak — Lur azpiko memoria

**2013. eta 2017. urteetan egin ziren Txabolapeako gorpuak lurpetik ateratzeko deshobiratzeak.**

**TXABOLAPEA 1**

**Sakone txikiko ehorzketa zen Txuliando izeneko inguruan zegoena. Hezurrak hurbileko zuhaitz baten sustraien artean zeuden. Aurkikuntza inguruan paseatzen zebiltzan bi gaztek egin zuten 2013ko apirilean, eta urte horretan bertan, uztailean, pertsona batez hezurdura ia osoa azaleratu zuten lan arkeologikoei esker. Gorpua eskuineko saihets-aldearen gainean etzanda zegoen, hil zenean bezala, agian granada baten eztandaren ondorioz.**

**TXABOLAPEA 2**

**Aranzadi Elkarteko bi kidek kartutxo-zorroaren material-hondarrak eta larru-zatiak aurkitu zituzten 2017an, giza hezurren hondakinekin lotuta. Urte bereko martxoaren 25ean egin zen deshobiratzea. Hezur-hondarrak, gainera, mugituta zeuden, distantzia txikira zegoen pinu baten sustraien hazkundearen ondorioz.**

**DUINTASUNAREN KOLUNBARIOA (ELGOIBAR)**

**Ezinezkoa izan zen bi gorpuak identifikatzea, eta haien gorpuzkiak Elgoibarko Duintasunaren Kolunbariora eraman eta bertan ehortzi ziren 2017an eta 2018an.**



## Exhumaciones — memoria bajo tierra

*En los años 2013 y 2017 se llevaron a cabo las exhumaciones de Txabolapea.*

*TXABOLAPEA 1*

*El enterramiento superficial se situaba en el paraje de Txuliando. Los restos óseos se encontraban entre las raíces de un árbol próximo. El hallazgo lo realizaron 2 jóvenes paseantes en abril del 2013 y ese mismo año , en julio, se llevó acabo la exhumación de un individuo apoyado sobre su costado derecho, tal y como murió, quizá por la explosión próxima de una granada.*

*TXABOLAPEA 2*

*Dos integrantes de la Sociedad Aranzadi localizaron en 2017 los restos de de cartuchería y cuero que sueles ir asociados a restos óseos humanos. La exhumación se llevó acabo el 25 de marzo de ese mismo año. Los restos óseos estaban además desplazados por el crecimiento de las raíces de un pino situado a escasa distancia.*

*COLUMBARIO DE LA DIGNIDAD (ELGOIBAR)*

*No fue posible la identificacion de ninguno de los individuos y sus restos se encuentran actualmente en el columbario de la Dignidad de Elgoibar, donde fueron depositados en los años 2017 y 2018.*

## Legutio Gerra Zibilean — en la Guerra Civil
## Argazkitan — en imágenes

Legutioko ikuspegia Txabolapeako pinaditik
*Vista de Legutio desde el pinar de Txabolapea*




Gerra garaiko irudiak. Nazionalak Justiziamendi. Atzean hilerri zaharra
*Soldados del bando nacional en Justiziamendi. Atrás el viejo cementerio*




Eliza, gerra garaiko enfrentamenduen ostean
*La Iglesia tras los enfrentamientos de la Guerra Civil*




Legutioko gotorlekua
*"Blocao" de Legutio*







Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria
gogora

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de LEGUTIO
LEGUTIOKO Udala

112 SOS DEIAK